

Marea gora, marea behera...

Arraunlariak denboraldiaren gorenean dira egunotan.

☞ Kontxak guztion ahotan jarri ditu arraunlari batzuk; baina distira gehien egiten duten horien ondoan badira izerdi galantak botatzen dituzten beste hainbat gazte ere.

☞ BARKATU AMA-k haiei eman die hitza.

Jon Maya

Arraunlari batzuek burua Kontxako itsas miletan besterik ez dute egunotan. Beste batzuk, aldiz, igandean sailkatu diren haiekin inbidiak jota izango dira telebistari begira; beste zenbait, bestalde, Aquarium parera joango dira haien kideak animatzera; eta Donostiako Alde Zaharrean pote batzuk hartzen geratzea nahiago izango duenik ere izango da, segur aski. Malko edo irribarre handienen garaia da arraunlari-errentzat. Hala ere, garaiko sentimendu horien ginetik, inork ez die ukatuko urte osoan egindako lana. Gehienok miresten dugu haien jarduna; eta, horregatik, arraunlari gazteak izango ditugu aste honetan mintzagai.

Halabeharrez, gaur gurean ditugun hiru protagonistak igandean ez dira Kontxan izango. Joseba Iturraste eta Isuntzako bere taldekideak sailkatzeko zorian izan dira; Gaizka Garmendia eta Trintxepeko kide guztiak lur jota utzi ditu lortutako emaitza kaxkarrak; eta Eneko Irigoienek ez du parte hartu. Bera Ur Joko taldeko arraunlaria da, baina, aurtan, jende faltagatik Hondarribi Bontzian ari dira bere taldekideak. Bi ontzi horiek ez dira Kontxan izan. Kontuak

kontu, hirurek antzeko kezkak eta burohausteak dituzte.

Elkarrizketaren hasiera, oharkabea, beraien prestaketara joan zaigu. Izan ere, arraunlari ororen gauza nabarmenena hori da. Are eta gehiago, gazteen kasuan. Aste-buruak nahiko lotuta, parranda gutxi, egunero entrenamenduak... «Kirol gogorra da, eta denboraldia ondo prestatzeko neguan lan handia egin beharra dago», esan du Josebak. Gaizkaren kasuan, berak onartzen du, patroia denez, ez duela hain lan fisiko gogorra egiten: «Niretzat gogorrera aste-buruak lotuta izatea da, entrenamenduak egunero izaten dira, eta denboraldia hasten denean, estropadak izaten ditugu». Planak ezin egitea, lagunekin festetara joan ezin izatea...

Arraunketaren munduan ez da berria Gaizkak zein Josebak esandakoa. Lotura eta neke horri, ordea, beste zailtasun batzuk gehitzen zaizkio batzuen kasuan. Esate baterako, Hendaia Ur Joko taldeko kideek bakardadea sentitzen dutela dio Enekok: «Hego Euskal Herrian zaletasun handia badago ere, Ipar Euskal Herrian arraunketa ez da batere ezaguna, oso bakarrik gaude beti; eta horri gehitu behar zaio taldea osatzeko jenderik ez dugula izaten sarritan, eta beste



lander f. arriola / argazki pias

«Arraunean zerbait originala

egiten ari naizela sentitzen

dut, nire izaera sortzen

laguntzen dit»

Donibane Lohizunera estropada batzuk ikustera joan eta gero erabaki zuen arraunean hasi nahi zuela. Jubenil maila zuenean hasi zen Ur Jokon, baina, jende eskasiagatik, San Pedron eta Hondarribian (aurten) ere egin du arraun. Urruñakoa da, eta aurtan Ziburuko ikastolan hasi da lanean, heziketa fisikoko irakasle. Azpimarratzekoa da Ur Jokoren helburua Ipar Euskal Herrian arraunketa ezagutaraztea dela..

Eneko Irigoien

25 urte

Ur Joko taldeko arraunlaria



Kadete mailan hasi zen arraunean, lagunekin batera, baina koadrila hartatik berak bakarrik jarraitzen du orain. Hala ere, oso gustura dabil. Festazalea izan arren, azken parranda Aste Santu garaian egin zuela dio, Elorrioko Gazte Topagunean; eta, hurrena, herriko jaietan egitea espero du, Kontxan izango ez direnez, bi egunetan ateratzeko aukera izango dugula uste baitu. Arrasaten Ingeniaritza ikasken ari da.

«Nik ez dut sinesten diru eta

fitxaketen arabera mugitzen

den arraunketan; bestelako

balioak miresten ditut»

Joseba Iturraste

20 urte

Isuntza taldeko arraunlaria



**Hau
bad
Ams**

Arraunla
estropad
beraientz
izan da n
Frantziak
Donostia
ugari ikus
Ez dute iz
Txitoen p
kazetaria
ematen j
haren on
Trainerva
egiten, z
sailkatze
gabe, gog
«Bagoaz
aurretik k
Isuntzako
zituzten A
fisikoak a
Zumaiako
«alabin, a
oihukatu
koadrilar
zebiltzan
herrikide
gertutas
Hauek ho
pentsa de
gehiago e
pean ger
astintzen
hutsez, ik
esan beza
laguntas
eramater
gainerako
Hauek ba
kazetaria

G

Trin

